

HAUR LIBURUTEGIA: 2012-2013 PLANGINTZA

	EGUNERO	ASTEAN BEHIN (IGANDETAN)	EKINTZA BEREZIAK
IRAILA	-Mailegu zerbitzua. -Ipuinak irakurri edo etxeko lanak egin. -Marrazkiak egin.	-Filma	Irailak 27
URRIA		Filma	Urriak 31
AZAROA		Filma	Azaroak 22
ABENDUA		Filma	Abenduak 20
URTARRILA		Filma	Urtarrilak 24
OTSAILA		Filma	Otsailak 21
MARTXOA		Filma	Martxoak 21
APIRILA		Filma	Apirilak 25
MAIATZA		Filma	Maiatzak 23
EKAINA		Filma	Ekainak 21

-MAILEGU ZERBITZUA: Irakurle bakoitzak gehienez ere 6 dokumentu hartu ahal izango ditu maileguan: 3 liburu eta 3 material berezi (DVD eta CD-ROM).

Mailegualdia hauxe izango da:

- Liburuak. 15 egun.
- Material bereziak. 7 egun.

Mailegua berritzeko aukera ere egongo da, epea motz geratu zaienentzat.

-IPUINA IRAKURRI EDO ETXEKO LANAK EGIN: Haurrengan irakurketa sustatzeko asmoz, haur liburutegiko arauetako bat egunero gutxienez 25 orri irakurri behar direla, eta batzuetan etxeko lanak ere egin ditzakete.

-MARRAZKIA MARGOTU: Ipuina irakurri edo etxeko lanak egin ondoren, beraien irudimena eta sormena lantzeko marrazki desberdinak margotu dezakete.

-IPUIN KONTALARIA, HEZITZAILEA NARRATZAILE: Hilero ipuin bat aukeratu eta hurrei kontatuko diet, haurrak ipuinen mundura hurbiltzea, herrialde eta une historiko desberdinak ezagutzeko aukera eskainiz. Ondoren, ipuinagatik galdera batzuk egingo dizkiet edo guztion artean komentatu dugu irakurketa eta bukatzeko, ipuinarekin lotutako marrazkia egin beharko dute. Hilero gai desberdin bat landuko dut. (ekintza berezietan azalduta)

-FILMA: Astean behin, igandeetan, euskarazko edo erderazko film baten emanaldia egingo dugu, beti ere 3 urtetik 12 urteko hurrei zuzenduta.

EKINTZA BEREZIAK

Kartelen bidez adieraziko diegu herriari noiz izango diren. Ekintza bereziak direnez, parte hartu ahal izateko apuntatu egin behar izango dute (ikastoletan edo liburutegian bertan). Gainera, ekintza hauek daudenean ere ez da mailegu zerbitzurik egingo.

IRAILA

Uda bukatzeaz batera, ikasturte berria hasi dugu. Berrito etxerako lanak, azterketak,..., baina baita betiko lagunak berriz ikusi eta beste batzuek ere egin, eta gauza pila ikasi.

Oporrak amaiturik, udako alferkeria astindu eta berrito bakoitza bere ohiko betebeharrak eta ordutegira bueltatzeko garaia iritsi da. Milaka ikasleek hasi dute ikasturte berria. Txikienez eskolara bueltatzea gogorregia ez gertatzeko, ipuin batzuk kontatuko dizkiet, (mila eskolara doa eta egun zoragarria). Liburu horietan agertzen diren umeez ere eskolara itzuli behar dute, batzuek gogo handiz, eta beste batzuek ez hainbeste.

URRIA

Gaba beltza datorrela aprobetxatuz, honekin lotutako ekintzak egingo ditut. Aldez aurretik ikastoletara oharrak bidaliko ditut: beltzez jantzita eta kandela batekin etortzeko. (Txantxagorriko norbaiti laguntza eskatu beharko diot, jende asko apuntatu ezker)

-HELBURUA: Beldurrezko ipuinak asmatzen ondo pasatzea.

-GAIA: Marrazki desberdinak marraztu eta kareetak egingo ditugu. Gero, Zabiela plazara irtengo gara eta bertan, txikienez ahozotasuna lantzeko beldurrezko ipuin bat asmatu beharko dugu denon artean.

Handiagoekin aldiz, orri zuri bat emango diet, eta bakoitzak beldurrezko egoera bat marraztuko du bertan. Bukatutakoan guztion marrazkiak batu eta komiki erraldoia egingo dugu, beldurrezko istorio barregarri bat guztion artean asmatuz.

AZAROA

Liburu mota asko, eta ezberdinak existitzen dira naiz eta guk paperezko liburuak erabiltzen ditugun gehien bat. Teknologia berriak lekua artzen ari direla nabaria da, eta baita liburuen munduan ere. Orain gero eta gehiago entzuten dira liburu elektronikoak, ipuinak on-line... azkeneko hauek aurkitu, entzun eta lantzea izango da hilabete honetan egingo duguna.

-HELBURUA: Literatura mota desberdinak ezagutzea.

-GAIA: Goiko aretora joan eta besteak beste, "Alodia jostunaren ipuina" jarriko diet pantailan, beraien ikusi eta entzun dezaten.

ABENDUA

Badatoz gabonetako oporrak eta bi astez etxean egongo dira txikienak. Data hauetan zehar familiarekin bildu eta eskolan ikasitako gabon kantzak abestuko dute. Olentzero eta Errege Magoak disfrutatzeke egunak helduko dira eta ondo portatu diren txikiak opari asko izango dituzte gabonetako zuhaitzean itxaroten.

-HELBURUA: Olentzeroren historia ezagutzea

-GAIA: Nik egun hauetan Olentzeroren ipuina irakurriko diet, baina ez modu arruntean bakarrik. Goiko aretora joan eta ordenagailuaren bidez egingo dut kontaketa. Ondoren Gabonen inguruko marrazkiak eta abestiak egingo ditugu bertan.

URTARRILA

-HELBURUA: ipuin klasikoak ezagutu eta interpretatzen ikastea.

-GAIA: Txanogorritxuren ipuina lantzeko asmoarekin, txotxongiloekin antzerkia egitea proposatuko diet. Lehenengo eta behin, ipuina kontatuko diet. Ondoren, ipuineko pertsonaien marrazkiak margotu, moztu eta makila bat jarriko diegu. Ondoren pertsonaiak banatu, eta aretora joango gara, bertan beraiei askatasunez interpretatzen utziko diet.

OTSAILA

-HELBURUA: ipuin klasikoak ezagutu eta interpretatzen ikastea.

-GAIA: 7 antxumeen ipuina lantzeko asmoarekin, txotxongiloekin antzerkia egitea proposatuko diet. Lehenengo eta behin, ipuina kontatuko diet. Ondoren, ipuineko pertsonaien marrazkiak margotu, moztu eta makila bat jarriko diegu. Ondoren pertsonaiak banatu, eta aretora joango gara, bertan beraiei askatasunez interpretatzen utziko diet.

MARTXOA

Martxoak 8: Emakumeen eta neskatilen Nazioarteko Eguna dela aprobetxatuz, hilabete honetan haur eta gazteentzako literatura klasikoan, eta batez ere, haur eta gazteentzako literaturan, ezin da esan neskak edo neskatilak protagonista ez direnik. Egon badaude, baina, ipuinaren protagonista izan arren, ez ziren euren bizitzen protagonistak (fikziozko bizitzak, bai, baina bizitzak azken finean): lorez apaindutako neskak, edertasun handikoak, ahulak eta otzanak,

beti printzesak , hoguei koltxoiren azpian jarritako ilar bat nabaritzeko bezain finak...

Zorionez, literatura onak beste neska batzuen ereduak ematen dizkigu, hauexek bai, benetako protagonistak: neska sendoak, ausartak, azkarrak, dibertigarriak, adoretuak, «antibarbiak», zabalera eta altuera jakin bati erreparatu gabe...

-HELBURUA: Emakumearen betiko estereotipoak apurtzea

-GAIA: Nik "Mari Zipriztinek ez du zorioneko galeperrik nahi" ipuina kontatuko diet eta ondoren ipuinaren inguruan hitz egingo dugu. Bukatzeko betiko lez, marrazki librea egiten lagako diet.

APIRILA

Apirilaren 2an Haur Liburuaren Nazioarteko eguna ospatzen da mundu guztian Hans Christian Andersen-en jaiotza oroitzeko. OEPLik (Haur Liburuarentzako Espainiako Erakundeak), bere lau atalekin batera –Galtzagorri Elkarteak, Haur eta Gazte Liburuaren Kontseilu Orokorra, consell Catalá del Llibre per a Infants i Joves (CijCAT) eta Asociación Galega do Libro Infantil e Xuvenil (Galix)-bertan parte hartzeko gonbitea egin eta guk onartu egin genuen.

-HELBURUA: Elkarrekin liburuak trukatzeari.

-GAIA: Sarrera moduan, ipuin bat kontatuko diet. Ipuin hau urtero herrialde desberdin bateko haurrek sortzen dute eta hizkuntza guztietara itzultzen da, mundu guztiko haurrentzat berdina izan dadin. Ondoren, hilabete lehenagotik ikastoletan eta liburutegian batu ditugun liburu guztiak erregistratu beharko ditugu ordenagailuan, ondoren liburuei pegatina jarri eta herriko toki desberdinetan uztera joango gara, norbaitek aurkitu, irakurri eta katearekin jarraituko duen esperantzarekin.

MAIATZA

Herritarrek betidanik emigratu izan dugu. Orain ere, hau gertatzen da, eta horregatik bada kultur nahasketa handia herrialdeetan, batez ere, herrialde garrantzitsuenetan. Euskal Herrian ez da hainbeste kanpotar ikusten baina ala ere gero eta gehiago. Maiatzaren 21ean Kultur Aniztasunaren aldeko nazioarteko eguna dela aprobetxatuz, hilabete hau kultur aniztasunari eskainiko diogu.

-HELBURUA: literaturaren bidez kultura desberdinak ezagutu eta elkarrekin bizitzen ikastea.

-EKINTZA: Bateko eta besteko ipuinak (ipuinena Jose Maria Hernandez Ripoll y Aro Sainz de la Maza) eta Gau bat txalupan (egilea, Amelia Benet, euskara

Josantonio Ormazabal) ipuinak irakurriko dizkiet haurrei. Ondoren ipuinari buruzko galderak egingo dizkiet eta guztion artean eztabaidatuko ditugu. Bukatzeko, marrazki librea egingo dute.

EKAINA

Ikasturtea amaitzear dago, eta dagoeneko udako oporrak gainean ditugu.

-HELBURUA: Landutako gai eta ipuin guztiak errepasatzea

-GAIA: Orain arte irakurritako liburu guztien artean, beraiei gehien gustatu zaiena aukeratu eta guztion artean muralak egingo ditugu Zabil Plazan ipintzeko.